



**ARANTZAKO UDALA**

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
© 948 634 005  
☎ 948 634 192  
arantza.udala@arantza.eu  
www.arantza.eu

## 2015EKO URTARRILAREN 13KO BILERAREN AKTA

**Organoa:** Udalbatza.  
**Batzarra:** Premiazko bilera berezia.  
**Eguna:** 2015.01.13.  
**Ordua:** Goizeko 8:00etan.  
**Tokia:** Herriko Etxeko areto nagusia.

### **Bertaratuak:**

Alkatea: Ander Almandoz Indacoechea jn.  
Zinegotziak:  
Koldobike Gorostiza Uriguen and  
Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn.  
Mikel Leiza Etxeberria jn.  
Teodoro Pikabea Zubieta jn.  
Jose Ignacio Madariaga Vergara jn.

### **Bertaratu ez direnak:**

Inor ere ez.

### **Idazkaria:**

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

### **Aztergaiak:**

- 1.-Bileraren premiaren onespena.
- 2.-Izandako atxiloketaren salaketa.

### **1.-BILERAREN PREMIAREN ONESPENA.**

Zinegotzi guztiak, aho batez, onartu dute bilera berezia hau egiteko dagoen premia eta beharraz.

### **2.-IZANDAKO ATXILOKETAREN SALAKETA.**

Haizea Ziluaga herriko bizilagunak pairatutako atxiloketa politikoaren aitzinean hauxe adierazten da:

Gaur goizean 16 euskal herritar atxilotu izanaren berri izan dugu. Tartean, Haizea Ziluaga, Arantzako bizilaguna dago. Gehienak, Haizea bezala, abokatuak dira. Ia egunero epaitegietan jarduera publikoan egoten badira ere, Guardia Zibilak operazio baten bitartez atzematea erabaki du. Gogor salatu nahi dugu egitate hau.

Haizea Madrilen atxilotu dute, bertan baitzegoen Ezker Abertzaleko 35 kideren aurka hastear zen epaiketan defentsa lanak egiteko. Haizea eta bere kideen atxiloketarekin, 35 euskal herritar hauek babes juridikorik gabe gelditu dira. Modu honetan, agerian geratzen da, hasiera hasieratik, operazio hau ernaldu duen bulkada politikoa.

Polizia operazio hau, espainiar estatuaren espetxe politika kriminala salatzeke Bilbon pasa den larunbatean manifestazio jendetsua egin eta bi egunetara gertatu da. Hori ere ez da kasualitatea, manifestazioari emandako erantzuna baizik. Berriz ere

mendekua. Operazio hau ere Espainiar estatuaren espetxe politika kriminalaren parte da, presoiei sostengu guztia kentzeko.

Espainiar estatuak Euskal herriaren kontra behin eta berriz mendekua baliatzen du. Estatu terrorista baten aurrean gaude, Kixote-Estatu baten aurrean, errotak dauden tokian erraldoiak ikusten dituen, abokatuak dauden tokian terroristak ikusten dituen eta militante politikoak ikusi beharrean kriminal arriskutsuak ikusten dituen, beren arma bakarrik boligrafoa eta papera izan arren.

Europar, askatasuna babesteko guztion askatasunak murriztu nahi dituztenean, herritarrok ezin dugu gure etorkizuna sekurokraten esku utzi. Herenegun, Parisen, milioika lagunek "Je suis Charlie" zioten. Gaur Euskal Herrian milaka lagunok "Je suis basque" diogu.

Dagozkigun eskubide guztiak aldarrikatzen jarraituko dugu, baina gure burua engainatu gabe. Gure Herriarentzat bake, demokrazioa eta askatasun eszenatoki posible bakarra Espainiar estatutik kanpo dago.

Hori dela kontuan hartuz, aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Aranztar eta euskal herritar guztiei bake, demokrazioa eta askatasun eszenatoki posible bakar hori errealitate bilakarazteko indarrak biltzeko deialdia egiten diegu. Espainiar estatuaren mendeku politika eta gerra estrategiaren aurka egiteko indarrak biltzeko garaia da, gure bidean -bake eta demokraziarako Euskal bidean- indarrak biltzeko deia egiten diegu aranztarrei eta orokorrean Euskal Herriari.

2) Halaber, Haizearen atxiloketa salatzeke, hurrengo egunetan antolatuko diren mobilizazioetan parte hartzeko deia luzatu nahi diegu herritarrei. Udal hau, bere aldetik, eginen diren mobilizazioetara atxikitzen da.

3) Udal honek bere elkartasun eta sostengu osoa helarazten die Haizearen senitarteko eta lagunei.

4) Akordio hau komunikabideei igortzea.

Bertzerik gabe, goizeko 8:30ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,  
Ander Almandoz Indacoechea.

